



IRAGARKIA

Gizarte Zerbitzuak eta Berdintasun Politika departamenturako maila ertaineko teknikari lanpostu baten deialdia

EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEAREN ERABAKIA ARGITARATZEA, LEHIAKETALDIKO HIRUGARREN ARIKETAREN EMAITZAK BERRAZTERTU ETA GERO

1.- Azterketak aztertzeko eta erreklamazioak aurkezteko epea pasatuta, bi erreklamazio aurkeztu dira: batetik, 72444432K nortasun-agiria duen izangaiak eskatu du proba praktikoa osatzen duten bi ariketei puntuazio bera ematea (15 puntu bakoitzari); beraz, eskatzen du ariketa horiek berriro zuzentzea irizpide horren arabera. Bestetik, 44149701M nortasun-agiria duen izangaiak eskatu du berak egindako lehiaketaldiko hirugarren ariketa berriro aztertzea.

2.- Proben zailtasun-maila, luzera eta garapena kontuan hartuta, epaimahai kalifikatzaileak erabaki zuen lehiaketaldiko hirugarren ariketaren lehen probari 20 puntuko gehieneko puntuazioa ematea; eta bigarrenari, 10ekoa.

3.- Epaimahai kalifikatzaileak uste du lehiaketaldiko hirugarren ariketako bi probei ezin zaiela puntuazio bera eman, kontuan hartuta beren zailtasun-maila, luzera eta garapena; eta, beraz, epaimahai kalifikatzaileak egindako puntuazio-bereizketa egokia dela hasiera batean.

4.- Nolanahi ere, kontuan hartzekoa da Auzitegi Gorenaren 2014ko urriaren 20ko epaia (Administrazioarekiko Auzien Hirugarren Sala, 7. Sekzioa, 3093/2013 Errekurtsoa), hitzez hitz honela dioena bere bosgarren oinarri juridikoan: *El tribunal calificador no aplicó las bases de la convocatoria de acuerdo con la jurisprudencia. En efecto, para asegurar, que en su aplicación estos órganos no incurran en arbitrariedad, viene exigiendo que cuando, de acuerdo con las bases, establezcan criterios de calificación o puntuación de los ejercicios, deben hacerlo antes de la celebración de los mismos y que también han de ponerlos en conocimiento de los aspirantes antes de ese momento.* Kontuan hartuta epaimahai kalifikatzaileak ez ziela izangaiei alde zuzenetik jakinarazi zenbateraino baloratuko zen ariketaren proba bakoitza, ariketa hori biziatu egin da eta irtenbide bakarra dago: egindako ariketa bertan behera uztea eta berri bat egitea, deialdiaren oinarrietan zehaztutakoaren arabera.



ORIOKUDALA

Euskaraz
bizi-bizi

5.- Argitaratzen dugun erabaki hau behin betikoa da administrazio bidean eta horren aurka ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOA aurkez daiteke Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean, bi hilabeteko epearen barruan, argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Hori baino lehen, hala ere, AUKERAZKO BIRJARPEN ERREKURTSOA aurkez daiteke alkatearen aurrean, hilabeteko epearen barruan, argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Kasu horretan, ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu birjarpen errekurtsoa erabaki edo atzera bota arte.

6.- Lehiaketaldiko **hirugarren ariketa 2018ko irailaren 24an egingo da, 10:00etan**, Orioko kultur etxean (Eusko Gudari, 26).

Egun berean, epaimahaiaren aurrean irakurri eta defendatu beharko dira egindako ariketak.

7.- Erabaki hau argitaratzea Orioko udaletxeko iragarki-taulan eta udal webgunean (orio.eus).

Orio, 2018ko uztailaren 26a.

EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEAREN PRESIDENTEA

Jon Carrera Jauregi



ORIOKOUNDALA

Euskaraz
bizi-bizi

ANUNCIO

Convocatoria de un puesto de Técnico/a medio/a del Departamento de Servicios Sociales y Políticas de Igualdad

PUBLICACIÓN DEL ACUERDO DEL TRIBUNAL CALIFICADOR DESPUÉS DE LA REVISIÓN DE LOS RESULTADOS DEL TERCER EJERCICIO DE LA FASE DE OPOSICIÓN

1.- Transcurrido el plazo de revisión de exámenes y subsiguiente de reclamaciones, se han presentado dos reclamaciones, solicitando por un lado, la aspirante con DNI 72444432K se conceda la misma puntuación a los dos ejercicios de la prueba práctica, es decir, que la primera y la segunda prueba tengan un valor de 15 puntos cada una, y en consecuencia, se revisen y se corrijan las pruebas en base a dicho criterio de corrección; y solicitando, por otro, la revisión de nuevo del tercer ejercicio de la fase de oposición de la aspirante con DNI 44149701M.

2.- Resultando que el Tribunal Calificador acordó otorgar una puntuación máxima de 20 puntos a la primera prueba y de 10 puntos a la segunda prueba, ambas del tercer ejercicio de la fase de oposición, atendiendo a su grado de dificultad, extensión y desarrollo de las pruebas.

3.- Considerando que las dos pruebas del tercer ejercicio de la fase de oposición no pueden tener la misma puntuación, atendiendo propiamente a su distinto grado de dificultad, extensión y desarrollo de las pruebas, por lo que resulta acertada a priori la distinta puntuación máxima otorgada por el Tribunal Calificador.

4.- Ahora bien, atendiendo a lo dispuesto en la Sentencia del Tribunal Supremo de 20 de octubre de 2014, Sala tercera, de lo Contencioso-administrativo, Sección 7ª, Recurso 3093/2013, concretamente en su fundamento jurídico quinto, en cuanto se señala literalmente lo siguiente: "El tribunal calificador no aplicó las bases de la convocatoria de acuerdo con la jurisprudencia. En efecto, para asegurar, que en su aplicación estos órganos no incurran en arbitrariedad, viene exigiendo que cuando, de acuerdo con las bases, establezcan criterios de calificación o puntuación de los ejercicios, deben hacerlo antes de la celebración de los mismos y que también han de ponerlos en conocimiento de los aspirantes antes de ese



ORIOKUDALA

Euskaraz 
bizi-bizi 

momento” y como quiera que el Tribunal Calificador no puso en conocimiento de los aspirantes la puntuación máxima a otorgar a cada una de las dos pruebas del tercer ejercicio de la fase de oposición antes de la celebración de las mismas, el tercer ejercicio ha resultado viciado y no cabe más que su anulación, y celebración de un nuevo ejercicio, de conformidad con lo dispuesto en las bases de la convocatoria.

5.- Contra el acuerdo que se publica, y que es definitivo en vía administrativa, podrá interponerse RECURSO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO ante los Juzgados de lo Contencioso Administrativo de Donostia-San Sebastián, en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la publicación.

No obstante, con carácter previo, podrá interponerse RECURSO POTESTATIVO DE REPOSICION ante esta Alcaldía-Presidencia, en el plazo de UN MES, a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta.

6.- El tercer ejercicio de la fase de oposición se celebrará **el día 24 de septiembre de 2018, a las 10:00 horas**, en la Casa de Cultura de Orio (Eusko Gudarien kalea nº 26).

En el mismo día, se realizará la lectura y defensa ante el Tribunal de los supuestos realizados.

7.- Proceder a la publicación de este acuerdo en el Tablón de anuncios de la Casa Consistorial y en la página web de Orio.

Orio, 26 de Julio de 2018

EL PRESIDENTE DEL TRIBUNAL CALIFICADOR

Jon Carrera Jauregui